

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Otsailaren 28an bukatuko da 2019ko Vianako Printzea Kultura Sarirako hautagaiak aurkezteko epea

*Golardoa emateko ekitaldia Vianan egingen da maiatzaren 4an, Hiriaren sorreraren VIII. mendeurreneko ospakizunekin bat eginik*

Ostirala, 2019.eko otsailak 1

Otsailaren 28an bukatuko da 2019ko Vianako Printzea Kultura Sarirako hautagaiak aurkezteko epea. Kultura Zuzendaritza Nagusiak deitutako sari honen bidez, kultura munduko pertsona edo entitate garrantzitsuen ibilbidea aitortu nahi da, arte plastikoetan, musikan, literaturan eta abarretan egindako sormen lanagatik zein zientzia, teknika eta ikerketa bezalako esparruetan egindako ekarpenagatik.

Aurten, saria emateko ekitaldia Vianan egingen da maiatzaren 4an, hiriaren sorreraren VIII. mendeurreneko ospakizunekin bat eginik.

Hautagaiak aurkeztu ahalko dituzte Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek eta edozein herrialdetako erakunde publikoek (gobernuak, ministerioak, udalak, unibertsitateak, akademiak, ikerketa zentroak, enbaxadak, kontsulatuak, eta abar), baita legez eraturako hezkuntza, kultura zein gizarte arloetako entitateek eta GKEek, eta antolatzaileek gonbidatutako pertsona ospetsuek ere.

Saria norberarentzat edo norberak legez ordezkatzeko duen erakundearentzat eskatuz aurkezturiko hautagaiak baztertuta geldituko dira.

Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek osatutako epaimahaiak hautagaiak aztertuko ditu, eta bakoitzari dagozkion merezimenduekin batera, Nafarroarekin duten lotura berezia ere baloratuko du.

Gogoan izan hautagaiak posta ziurtatuaren bidez igorri beharko direla Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira (Navarrería kalea, 39, 1.; 31001 Iruñea, Espainia), gutun-azalean "2019ko Vianako Printzea Kultura Saria" idatziz.

Mezularitza zerbitzuaren bidez igorri gero, e-mail bat bidali beharko da [premioprincipedeviana@navarra.es](mailto:premioprincipedeviana@navarra.es) helbidera, eta igorpenaren berri eman beharko da, proposamenak aurkezteko epearen barnean. Proposamenak, aipaturiko helbide elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahalko dira.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak, sarituarekin adosturik, lana zabaltzeko proiektu bat egingen du, gehienez ere 20.000 eurokoa.

### Aurreko edizioak

Hauexek dira orain arte saria jaso duten pertsonak eta erakundeak:

1990: José Goñi Gaztambide (historialaria).  
1991: Eugenio Asensio Barbarin (filologoa)  
1992: Iruñeko Orfeoia  
1993: Rafael Moneo (arkitektoa)  
1994: Francisco Ynduráin (filologoa)  
1995: Julio Caro Baroja (historialaria)  
1996: Pablo Antoñana Chasco (idazlea)  
1997: Pedro Miguel Etxenike (fisikaria)  
1998: Montxo Armendariz (zinegilea)  
1999: Álvaro d'Ors (jurista)  
2000: Concepción García Gaínza (historialaria)  
2001: Miguel Sánchez-Ostiz (idazlea)  
2002: María Bayo (sopranoa)  
2003: Juan José Aquerreta Maestu (margolaria)  
2004: Fernando Redón (arkitektoa)  
2005: Javier Manterola Armisén (ingeniari zibila)  
2006: Javier Tejada Palacios (fisikaria)  
2007: Pedro Iturralde Ochoa (jazz musikaria)  
2008: Alfredo Landa Areta (antzezlea)  
2009: Agustín González Acilu (musikari eta konposatzailea)  
2010: Jürgen Untermann (hizkuntzalari, filologo eta epigrafista)  
2011: Faustino Menéndez Pidal de Navascués (heraldista)  
2012: Antonio López García (margolaria)  
2013: Daniel Innerarity Grau (filosofoa)  
2014: Tarsicio de Azcona (historialaria)  
2015: Ramón Andrés (idazle eta musikologoa)  
2016: Ignacio Aranguren (antzerki zuzendaria)  
2017: José Lainez (koreografo eta dantzaria) eta Concha Martínez (koreografo eta dantzaria).  
2018: Iruñeko Ganbera Abesbatza.